

<p>GETXOKO UDALEKO TOKIKO GOBERNUKO BATZARRAK 2019EKO ABENDUAREN 3AN LEHENENGO DEIALDIAN EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA.</p> <hr/> <p><u>BILDUTAKOAK</u></p> <p><u>LEHENDAKARIA</u></p>	<p>ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO EL DÍA 3 DE DICIEMBRE DE 2019.</p> <hr/> <p><u>ASISTENTES</u></p> <p><u>PRESIDENTA</u></p>
--	--

Amaia Aguirre Muñoa And.

<p><u>BATZARKIDEAK</u></p>	<p><u>VOCALES</u></p>
----------------------------	-----------------------

Keltse Eiguren Alberdi And.  
Álvaro González Pérez Jn.  
Ignacio Uriarte Gorostiaga Jn.  
Joseba Arregui Martínez Jn.  
Janire Ocio Celada And.  
Iñigo Urkitza Yañez Jn.  
Carmen Díaz Pérez And

<p><u>IDAZKARI NAGUSIA</u></p>	<p><u>SECRETARIO GENERAL</u></p>
--------------------------------	----------------------------------

Ignacio J. Etxebarria Etxeita jn.

Getxoko Udaletxean, bi mila eta hemeretziko abenduaren hiruan eta Amaia Aguirre Muñoa alkate andrea bilerako buru dela, goizeko bederatzietan Tokiko Gobernuko Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Goian aipatutako zinegotzietz gain, kontu-hartzaile nagusia, Nuria Hernández Soto andrea, izan da bertan.

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Getxo, a tres de diciembre de dos mil diecinueve, y bajo la presidencia de la Sra. Alcaldesa, doña Amaia Aguirre Muñoa, se reunió a las nueve horas de este día, la Junta de Gobierno Local, para celebrar sesión ordinaria, con asistencia de los corporativos expresados, más la Interventora General, doña Nuria Hernández Soto.

Alkateak, legeak eskatzen duen kide-

La Alcaldesa, visto que existía número

kopurua bildu dela ikusita, bilerari hasiera eman dio, eta jarraian, Deialdiko Aztergaien Zerrendan jasota dauden gaiak aztertu dira. Hauxe izan da emaitza:

**521.- UDALEKO GOBERNU BATZARRAK 2019KO AZAROAREN 26AN EGIN DUEN OHIKO BILERAKO AKTA ONESTEA.**

Aurreko ohiko bilerako akta onartu dute, 2019ko azaroaren 26ko bilerakoa, hain zuzen.

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUAK**

**522.- ESPAZIO PUBLIKOETAKO ZOLADURA MANTENTZEKO ZERBITZUAREN PREZIOAK BERRIKUSTEA ONESTEA.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

LEHENENGOA: BAP GETXO ABEEari (IFK: U95734919), SOCIEDAD ANÓNIMA DE MANTENIMIENTO, OBRAS Y SERVICIOS, SAMOS (IFK: A-48152607) eta CONSTRUCCIONES FHIMASA SA (IFK: A-48047377) enpresek osatutakoari, prezioen berrikuspena onestea, 2018-09-19tik 2019-09-18ra, GETXO UDALERRIAN ESPAZIO PUBLIKOEN ZORUA MANTENTZEKO ZERBITZUA emateko, % 1,87ko gehikuntzarekin bat etorritik (Euskal Autonomia Erkidegoko KPIak 2017ko abuztutik 2018ko abuztura izandako % 2,2ko aldakuntzaren % 85ari dagokiona). Hala, zerbitzuaren zenbateko eguneratua hauxe da:

legal suficiente, declaró abierta la sesión, pasándose seguidamente a despachar los asuntos incluidos en el Orden del Día de la Convocatoria, con el resultado siguiente:

**521.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL ACTA DE LA ANTERIOR SESIÓN ORDINARIA CELEBRADA EL DÍA 26 DE NOVIEMBRE DE 2019.**

Se aprobó el Acta de la anterior sesión ordinaria celebrada el día 26 de noviembre de 2019.

**ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

**522.- APROBACIÓN DE LA REVISIÓN DE PRECIOS DEL SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE PAVIMENTOS DE ESPACIOS PÚBLICOS.**

A propuesta del concejal responsable del área de contratación, patrimonio y vivienda, se acordó:

PRIMERO: Aprobar la revisión de precios a la U.T.E. BAP GETXO con CIF: U95734919 formada por las empresas "SOCIEDAD ANÓNIMA DE MANTENIMIENTO, OBRAS Y SERVICIOS, SAMOS", con C.I.F nº A-48152607 y "CONSTRUCCIONES FHIMASA, S.A.", con C.I.F. nº A-48047377, a partir del día 19/09/2018 al 18/09/2019 para el SERVICIO DE MANTENIMIENTO DE PAVIMENTOS DE ESPACIOS PÚBLICOS EN EL MUNICIPIO DE GETXO de acuerdo con el incremento del 1,87% (correspondiente al 85% de 2,2% variación experimentada por el IPC de la Comunidad Autónoma Vasca desde el mes de agosto de 2017 al mes de

agosto de 2018), resultando un importe actualizado para este servicio de:

□ 1. blokea: 423.419,18.- euro, gehi 88.918,03.- euro (BEZaren % 21).

□ Bloque 1: 423.419,18.-€ más 88.918,03.-€ correspondiente al 21% de IVA

□ 2., 3. eta 4. blokeak: 296.311,05.- euro gehi 62.225,32 euro (% 21eko BEZa).

□ Bloque 2, 3 y 4: 296.311,05.-€ más 62.225,32.-€ correspondiente al 21% de IVA

BIGARRENA: Behar den gastua baimentzea eta xedatzea, 13.211,89 eurokoa gehi % 21eko BEZari dagozkion 2.774,49.- euro, 2018-09-19tik 2019-09-18ra bitarteko prezioen berrikuspenari aurre egiteko. Honela banakatuko da:

SEGUNDO: Autorizar y disponer el gasto necesario por importe de 13.211,89.-€, más 2.774,49.-€ correspondiente al 21% de I.V.A. para hacer frente a la revisión de precios del 19/09/2018 al 18/09/2019, conforme al siguiente desglose:

□ 1. blokea: 7.772,59.- euro, gehi 1.632,24.- euro (BEZaren % 21).

□ Bloque 1: 7.772,59.-€ más 1.632,24.-€ correspondiente al 21% de IVA

□ 2., 3. eta 4. blokeak: 5.439,30.- euro gehi 1.142,25 euro (% 21eko BEZa).

□ Bloque 2, 3 y 4: 5.439,30.-€ más 1.142,25.-€ correspondiente al 21% de IVA

**523.- GARBIGUNE MUGIKORRAK KUDEATZEKO ZERBITZUA ADJUDIKATZEKO, PLEGUAK ONESTEA ETA GASTUA BAIMENTZEKO ESPEDIENTEA HASTEA.**

**523.- INICIO DEL EXPEDIENTE PARA LA ADJUDICACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN DEL PUNTO MÓVIL, APROBAR PLIEGOS Y AUTORIZAR EL GASTO.**

Kontratazio, Ondare eta Etxebizitza arloen zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del área de contratación, patrimonio y vivienda, se acordó:

LEHENENGOA: UDALERRIKO GARBIGUNE MUGIKORRA KUDEATZEKO ZERBITZUA prozedura irekiaren bitartez adjudikatzeko arauzko izapideak hasteko baimena ematea.

PRIMERO: Autorizar el inicio de la tramitación reglamentaria para la adjudicación, mediante Procedimiento Abierto, del SERVICIO DE GESTIÓN DEL PUNTO MÓVIL EN EL MUNICIPIO.

Kontratuak 2 (bi) urteko iraupena

El contrato tendrá una duración de de 2

izango du, sinatzen den egunetik zenbatzen hasita. Beren-beregi luza daiteke kontratua, mugaeguneratu aurretik, ondoz ondoko bi alditan, urtebetekoa bakoitza.

Kontratuaren gehieneko zenbatekoa, guztira, 80.000 euro izango da, % 10eko BEZa barne (40.000 euro urtean).

**BIGARRENA:** Administrazioko kontratazioa arautu behar duten administrazio-klausula berezi eta teknikoen pleguak onestea.

**HIRUGARRENA:** Beharrezko gastua egiteko baimena ematea (80.000 euro, hau da, 40.000 euro urtean), aipatutako zerbitzua kontratatzetik sortutako betebeharrei aurre egiteko. Baimen hori emateko, 2020ko ekitaldian kreditu nahikoa eta egokia egon behar da, orduantxe hasiko baita kontratua betetzen.

**LAUGARRENA:** Kontratuaren arduradun izendatuko da Ingurumeneko teknikari den Josu Ateka jauna.

## LURRALDEA

**524.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGI NAGUSIAREN 119/2019 EPAIA JAKINARAZTEA; "35-1 FADURA III ITUN BATZARRARI EGINDAKO ORDAINSARIEN ERREKLAMAZIOARI BURUZKOA.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disiplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

(dos) años, a contar desde la fecha de su firma. Será prorrogable de forma expresa antes de su vencimiento, por dos períodos sucesivos de un año de duración cada uno de ellos.

El importe máximo del contrato asciende a 80.000 euros, 10% de I.V.A. incluido, a razón de 40.000 euros/año.

**SEGUNDO:** Aprobar los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Técnicas que han de regir la contratación administrativa.

**TERCERO:** Autorizar el gasto necesario para hacer frente a las obligaciones derivadas de la contratación del servicio de referencia, por importe máximo de 80.000 euros (a razón de 40.000 euros/año). Dicha autorización queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el ejercicio 2020, en el cual se iniciará la ejecución del contrato.

**CUARTO:** Designar como responsable del contrato al técnico de Medio Ambiente, Josu Ateka.

## TERRITORIO

**524.- DACIÓN DE CUENTA DE LA SENTENCIA N° 119/2019 DEL TRIBUNAL SUPERIOR DE JUSTICIA DEL PAÍS VASCO RELATIVA A LA RECLAMACIÓN DE HONORARIOS A LA JUNTA DE CONCERTACIÓN DE LA U.E. 35-1 "FADURA III".**

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako 119/2019 Epaiaren jakitun geratzea. Epai hori 782/2018 Apelazio-errekurtsoa ebazteko eman zuen. Errekurtsoa administrazioarekiko auzien Bilboko 4. epaitegiak, 53/29016 Administrazioarekiko auzi-errekurtsoan, emandako 68/2018 Epaiaren aurka jarri zen.

68/2018 Epaiaren bidez, hauxe erabaki zen: "Zati batean baietsiko da Palacios Martínez prokuradoreak, Carlos Manuel jaunaren ordezkartzan, jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, 35.1-“Fadura III” egikaritze-unitateko ituntze-batzarrari egindako ordainsarien erreklamazioa administrazio-isiltasunagatik ukatu izanaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsoa administrazio-isiltasunagatik ezetsi izanaren aurka. Hala, gora jotzeko errekurtso hori deuseztatu eta indarririk gabe utziko da, eta Getxoko Udala, aipatutako ituntze-batzarraren kide den aldetik, kondenatzen da errekurtso-egileari laurogeita hamalau mila berrehun eta hogeita hamaika euro eta berrogeita hamalau zentimo (94.231,54 euro) ordaintzera. Halaber, administrazioko erreklamazioa egin zenetik ordainketa egin arte egondako KPIarekin bat etorritz eguneratuko da zenbateko hori".

119/2019 Epaiaren bidez, hauxe erabaki zen: "Baietsiko da 782/2018 Apelazio-errekurtsoa, Getxoko Salsidu etorbideko 44-A, 44-B eta 44-C zenbakietako jabeen erkidegoaren prozesuko ordezkartzak jarria, administrazioarekiko auzien Bilboko 4. epaitegiak 53/2016 prozedura arruntean emandako 68/2018 Epaiaren aurka. Hala, errekurritutako epaia

Quedar enterados de la Sentencia nº 119/2019, dictada por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en resolución del recurso de apelación nº 782/2018, interpuesto contra la Sentencia nº 68/2018, dictada por el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 4 de Bilbao, en el recurso contencioso-administrativo nº 53/29016.

Conforme a la Sentencia nº 68/2018, se acordaba "Estimar en parte el recurso contencioso administrativo interpuesto por la Procuradora Sra. Palacios Martínez en representación de D. Carlos Manuel contra la desestimación por silencio administrativo del recurso de alzada interpuesto por la negativa por silencio administrativo de la reclamación de honorarios a la Junta de Concertación de la UE 35.1 Fadura III, que se declara nulo y se deja sin efecto, condenando al Ayuntamiento de Getxo, como integrante de la Junta de Concertación citada a abonar al recurrente la cantidad de noventa y cuatro mil doscientos treinta y un euros con cincuenta y cuatro céntimos (94.231,54 euros), y la actualización de la tal cantidad conforme al IPC desde la reclamación administrativa hasta el efectivo pago".

Conforme a la Sentencia nº 119/2019, se acuerda "Estimar el recurso de apelación nº 782/2018, interpuesto por la representación procesal de la COMUNIDAD DE PROPIETARIOS DE LA AVENIDA SALSIDU Nº 44-A, 44-B y 44-C DE GETXO, contra la Sentencia nº 68/2018, de 13 de abril, del Juzgado de lo Contencioso-Administrativo nº 4 de Bilbao, dictada en el Procedimiento

ezeztatuko da eta, hortaz, Getxoko Udala absolbituko da Carlos Manuel jaunari 94.231,54 euroko zenbatekoa ordaintzeko kondenatik. Ez zaio inori kosturik ezarriko”.

Ordinario nº 53/2016, revocando la misma, y, en consecuencia, procede absolver al Ayuntamiento de Getxo de la condena al pago a don Carlos Manuel de la cantidad de 94.231,54 euros. Sin imposición de costas”.

**525.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2019-09-17AN HARTURIKO 392 ERABAKIAN ANTZEMANDAKO AKATS BAT ZUZENTZEA. ERABAKI HORREN BITARTEZ, BASAGOITI ETORBIDEKO 32. ZENBAKIKO BEHEKO SOLAIRUKO EZKERREKO ALDEAN DAGOEN ETXEBIZITZA BATEAN LOKAL BAT ERABERRITU ETA KONTSERBATZEKO OBRAK EGITEKO LIZENTZIA UKATU ZEN.**

**525.- RECTIFICACIÓN DE ERROR EN EL ACUERDO Nº 392 DE JUNTA DE GOBIERNO LOCAL DE FECHA 17/09/2019, POR EL QUE SE DENIEGA LA LICENCIA DE OBRAS DE REFORMA Y CONVERSIÓN DE UN LOCAL EN UNA VIVIENDA EN LA AVDA. BASAGOITI, 32, BAJO IZDA.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

LEHENENGOA.- Tokiko Gobernu Batzarraren 2019-09-17ko 392. Erabakian jasotako akats materiala zuzentzea eta, hala, jasota geratuko da eskatzailearen bigarren abizena BADIOLA dela.

PRIMERO.- Rectificar el error material contenido en el Acuerdo de la Junta de Gobierno Local 392 de fecha 17.09.19, haciendo constar que el segundo apellido del solicitante de la licencia es BADIOLA.

BIGARRENA.- Erabaki hau eskatzaileari jakinaraztea, eta haren aurka egiteko egokiak diren aurkaratze-baliabideak eskaintzea.

SEGUNDO.- Notificar el presente acuerdo al solicitante con ofrecimiento de los medios de impugnación que proceden frente al mismo.

**526.- NEGURI ETORBIDEKO 9. ZENBAKIKO BIGARREN ETA HIRUGARREN SOLAIRUETAKO ETXEBIZITZAK HIRU ETA ZAZPI ETXEBIZITZATAN (HURRENEZ HURREN) BANATZEKO OBRAK EGITEKO LIZENTZIA EMATEA.**

**526.- CONCESIÓN DE LICENCIA DE OBRAS PARA LA DIVISIÓN DE LAS VIVIENDAS DE LA SEGUNDA Y TERCERA PLANTA EN AVDA. DE NEGURI, 9, PARA SU DIVISIÓN EN TRES Y SIETE VIVIENDAS, RESPECTIVAMENTE.**

Hirigintza-plangintza, Kudeaketa, Disziplina eta Udal Eraikinak Arloko zinegotzi arduradunak proposatuta, erabaki hau hartu da:

A propuesta del concejal responsable del Área de Planeamiento, Gestión y Disciplina Urbanística y Edificios Municipales, se acordó:

LEHENENGOA:

PRIMERO:

I.- Juan Bosco Smith jaunari, Burdin Bidarte SA enpresaren ordezkartzan, obra-lizentzia emango zaio Neguri etorbideko 9.eko bigarren eta hirugarren solairuetako etxebizitzak banatzeko; 3 eta 7 etxebizitza egiteko, hurrenez hurren. Hori guztia, oinarrizko proiektuarekin bat etorriz, José María Smith Solaun eta Fernando Smith Alarcón de la Lastra arkitektoek idatzia.

I.- Conceder a D. Juan Bosco Smith, en representación de Burdin Bidarte S.A., licencia de obras para la división de las viviendas de la segunda y tercera planta en Avenida de Neguri nº 9 que pasarán a ser 3 y 7 viviendas respectivamente. Todo ello de acuerdo con el proyecto básico redactado por los Arquitectos D. José María Smith Solaun y D. Fernando Smith Alarcón de la Lastra.

Baldintza hauek bete behar dira:

Deberá cumplir las siguientes condiciones:

a) Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zerbitzuak 2018ko azaroaren 28an emandako 210/18 Ebazpenean jasotakoak.

a)Indicadas en la Resolución nº 210/18, de 28 de noviembre de 2018 del Servicio de Patrimonio de la Diputación Foral de Bizkaia,

Foru-ebazpenaren bidez, baimendu da egin nahi den esku-hartzea; alabaina, honako baldintza hauek bete beharko dira nahitaez:

La resolución foral autoriza la intervención pretendida con el siguiente condicionante que será de obligado cumplimiento:

«Esku-hartzeak hauxe aurreikusten du: Neguri etorbideko 9. zenbakian (Ormaetxe kaleko 3. zenbakiarekiko ertzean) 3. solairuko fatxadan gaur egun dauden leiho eta balkoietako ateak aldatzea eta horien ordezkarekin zurezkoak edo aluminio lakatuzkoak eta marroiak diren beste batzuk jartzea, Climalit kristal bikoitzarekin eta pertsianako barneko kutxarekin; halaber, pertsiana bilgarria izango da eta aluminio lakatuzko lama marroiak izango ditu, orain dauden zurajeen jatorrizko kolorearekin bat etorriz.

«La intervención prevé la sustitución, en fachada, en el piso 3º de C. Avda Neguri 9 esquina Ormetxe 3, de ventanas y puertas balconeras actuales por otras en madera o de aluminio lacado de color marrón, con cristal doble climalit y cajón de persiana interior y la persiana enrollable de lamas de aluminio lacado de color marrón, en consonancia con el color original de las carpinterías actualmente existentes y deberá respetarse escrupulosamente, el dibujo original de las carpinterías exteriores, es decir la

Horrez gain, zehatz-mehatz bete beharko da kanpoko zurajeen jatorrizko marrazkia, hau da, horien jatorrizko ataltzearen diseinua eta osaera.

Inguruabar hori dela eta, leihoen jatorrizko diseinua eta osaera mantentzeaz gain, aluminiozko pertsiararako, balkoiarako ateetarako eta leihoetarako hautatutako kolorea ere mantendu beharko da: distirarik gabeko marroi matea. Hori guztia, 3. solairuko fatxadan, kanpoaldean, aldatutako zurajeak gaur egun dauden gainerako etxebizitzetako solairuetako jatorrizko zurajeekin erabateko harmonian daudela bermatze aldera».

b) Udaleko arkitektoaren 2019ko azaroaren 4ko txostenean jasotakoak:

- Lanak hasi aurretik, gehienez 60 eguneko epean, egikaritze-proiektu bat aurkeztu beharko da, dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsia eta Udaleko Zerbitzu Teknikoek ontsat emana.

- Berariaz gogorarazten da eraikitzean derrigorrezkoa dela aurkeztutako planoak, udalak onetsitakoak, zehatz betetzea.

- Edozein aldaketa egiteko, baimena eskatu beharko da obrak egin baino lehen, eta horiek ezingo dira hasi udal-baimena eskuratu arte.

- Obrak egin bitartean, indarrean dauden segurtasun-neurriak hartu beharko dituzte, hirugarrenei kalterik ez eragiteko.

- Obra egikaritzean enpresa batek baino gehiagok parte hartzen badu, edo

composición y el diseño del despiece original de las mismas.

Debido a esta circunstancia, se debería mantener, además de la composición y el diseño original de las ventanas, el color marrón exterior elegido -marrón mate sin brillo- para las ventanas, puertas balconeras y las persianas de aluminio. Todo ello con la finalidad de garantizar la absoluta armonía en fachada de las carpinterías sustituidas exteriormente en la 3ª planta, con el resto de las carpinterías originales de las otras plantas de viviendas, actualmente existentes»

b) Indicadas en el informe del Arquitecto Municipal de fecha 4 de noviembre de 2019:

- Con antelación al inicio de las labores será preciso entregar un Proyecto de Ejecución visado por el Colegio Oficial correspondiente. (plazo máximo 60 días), que deberá obtener el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales.

- Se recuerda especialmente la obligación de ejecutar la construcción ajustándose enteramente a los planos presentados y aprobados por el Ayuntamiento.

- Todo tipo de modificación se solicitará previamente a la ejecución de las obras, no pudiéndose comenzar éstas sin el correspondiente permiso municipal.

- Durante el transcurso de las obras deberán adoptar las medidas de seguridad vigentes, para evitar daños a terceros.

- Cuando en la ejecución de la obra intervenga más de una empresa, o una



enpresa batek eta hainbat langile autonomok, sustatzaileak lanak hasi aurretik edo hasi bezain laster segurtasun- eta osasun-arloko koordinatzailea izendatuko du, obrek irauten duten bitartean.

- Lizentzia hau betetzeko epeak eta iraungitasuna:

- Obrak hilabeteko epean hasiko dira, aurkeztutako egikaritze-proiektua ontzat ematen denetik zenbatuta.

- Obrak egikaritzeko, gehienez, 8 hilabeteko epea finkatu da.

- Obrak, gehienez ere, hilabetez egon daitezke geldirik, sustatzaileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik.

- Eraikuntza eta eraispenen hondakinen kudeaketa eta produkzioa arautzen dituen ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuaren 5. artikulua ezarritakoan oinarrituta, obran sortzen diren hondakinak behar bezala kudeatuko direla bermatzeko, kudeaketaren kostuaren % 120ko fidantza jarri beharko dute obrak hasi aurretik. Kasu honetan, fidantza 3.701,29 eurokoa da.

c. Azpiegitura eta Zerbitzuetako Unitateko buruaren 2019-09-23ko txostenean jasotakoak:

## OROKORRAK

Gogoeta orokor bat: udal-eskumeneko sareetan, eskatzaileak ez du baimenik izango udal-instalazioak maniobratzeko Udaleko Zerbitzu Teknikoen adostasuna eta presentzia eta/edo baimena ez baditu.

empresa y trabajadores autónomos o diversos trabajadores autónomos, el promotor, antes del inicio de los trabajos o tan pronto se constate dicha circunstancia, designará un coordinador en materia de seguridad y salud durante la ejecución de la obra.

- Plazos de ejecución de esta licencia y caducidad de la misma:

- El plazo de inicio de las obras será de 1 Mes, contado a partir del visto bueno al proyecto de ejecución presentado.

- Se establece un plazo máximo para la ejecución de los trabajos de 8 Meses.

- El periodo máximo que podrá estar interrumpida la ejecución de las obras por causas imputables a su promotor será de 1 Mes.

- Con base en lo que se establece el Art.5 del Decreto 112/2012 de 26 de junio por el que se regula la producción y gestión de residuos de construcción y demolición, antes del inicio de las obras se deberá depositar una fianza que garantice la adecuada gestión de los residuos que se produzca en la obra por un valor del 120% del coste de gestión de residuos. En el caso que nos ocupa la fianza es de 3.701,29.

c. Condiciones recogidas en el informe del Jefe de Unidad de Infraestructura y Servicios de fecha 23.09.19:

## GENERALES

Como consideración general, el peticionario no está autorizado a la maniobra de instalaciones municipales sin el acuerdo y presencia y/o autorización de los Servicios Técnicos municipales en las redes de

Arestian azaldutakoa betetzen ez bada, Azpiegitura eta Zerbitzu Sailak eskatutako lizentzia bertan behera utziko du, ondorio egokietarako.

#### URA ETA SANEAMENDUA

Etxebizitzen banaketa izanik eta aintzat hartuta hargunean ez dela jarduketarik egingo, ez dagokio horri buruzko txostena egitea. Hargunea ukituz gero, udal-xehetasunen arabera jardungo da.

#### BIDEAK

Obrak hasi baino lehen, plano bat aurkeztu beharko da, zolatu beharreko eremua definitzen duena. Hala eta guztiz ere, fatxadaren aurrealdean egingo den espaloian eta zerbitzuak egitean ukitzen diren bide publikoko zonetan, egin beharreko zoruak baldintza hauek beteko ditu:

Zolatu beharreko azaleran zangak egitean kaltetzen den zona osoa eta dagoen zoruan sor litezkeen balizko kalteak sartu beharko dira, irizpide orokor hauen arabera:

#### ZANGA GALTZADAN

Galtzadan zangen goiko errematea 5 cm-koa izango da, berotako aglomeratu asfaltikokoa, AC11 surf 50/70 D motakoa idorki ofitikoarekin, eta 25 cm hormigoi HNE-20/B/20 motakoa, zagar artifizialezko betelanaren gainean. Galtzadako bide-zorua (goiko hormigoia zein aglomeratua) birjarri

competencia municipal.

El incumplimiento de lo anteriormente señalado vendrá a anular la licencia solicitada por parte del departamento de Infraestructura y Servicios, a los efectos oportunos.

#### AGUA Y SANEAMIENTO

Tratándose de una segregación de viviendas y no actuando en la acometida no procede informar al respecto. Caso de afectar la acometida se actuará según lo indicado en los detalles municipales.

#### VIALIDAD

Antes del inicio de las obras deberá presentarse un plano en el que se defina el ámbito de la superficie a pavimentar, no obstante tanto en la acera a ejecutar en el frente de fachada como en las zonas de la vía pública afectadas por la ejecución de los diferentes servicios, el pavimento a ejecutar se ajustará a las siguientes indicaciones:

La superficie a pavimentar deberá incluir a toda la zona afectada por la ejecución de las zanjas y posibles daños causados al pavimento existente de acuerdo con los siguientes criterios generales:

#### ZANJA EN CALZADA

El remate superior de las zanjas en calzada será, de 5 cm. de aglomerado asfáltico en caliente tipo AC 11 surf 50/70 D con árido ofítico, y 25 cms de hormigón HNE-20/B/20, sobre relleno de zahorra artificial. El firme de la calzada (tanto el hormigón superior como el aglomerado) se repondrá en

egingo da, zangaren zabalera baino gutxienez 40 cm zabalago izateko moduan (20 cm alde bakoitzean). Galtzadako gurutzeen kasuan, erroadura zorua birjartzerakoan, dagoen zoruarekiko mozketak perpendikularrak izango dira zintarriarekin. Jarduketa kaleen arteko gurutzean gertatzen bada, aglomeratua gurutzearen azalera osoan birjarriko da. Aparkalekuari edo zirkulazio-erreiari eragiten badio, erroadura-zorua beraien zabalera osoan birjarriko da, mozketak zintarriarekin perpendikularrak izateko moduan. Mozketa guztiak ebakitzaila mekanikoz egingo dira, eta zolatu ondoren zigilatu egingo dira. Erroadura-geruza oinarrizko hormigoia isuri ondoko 10 egunetan birjarriko da; ondoren, ukitutako seinale horizontalak birjarriko dira, osagai bikoitzeko pinturarekin.

#### ZANGA ESPALOIAN EDOTA OINEZKOENTZAKO ZONAN

Espaloietako goiko errematea baldosa hidraulikozkoa izango da eta, gutxienez, HNE-20/B/20 hormigoizko 10 cm izango ditu. Espaloiko pasabideetan hormigoia lodiera 20 cm-koa izango da. Oinezkoentzako zonetan, akabera ez bada baldosazkoa, dagoen akaberaren berdina jarriko da. Lanak hasi aurretik eduki behar dira akabera berria egiteko materialak. Gainera, bide-zoruen sortaren birjarpena gutxienez 20 cm handiagoa izango da egin beharreko zangaren alde bakoitzetik, eta baldosa osorik egongo da, mozketarik gabe; lanak egitean kaltetzen diren guztiak ordezkatu beharko dira. Oinezkoentzako zonen

una anchura al menos 40 cms mayor (20 cms a cada lado) que la anchura de la zanja. En el caso de cruces de calzada, la reposición del pavimento de rodadura se ejecutará de forma que los cortes con el pavimento existente serán perpendiculares al bordillo. En el caso de realizar la actuación en una zona de intersección de calles, el aglomerado se repondrá en la superficie total del cruce. En el caso de afectar al aparcamiento o carril de circulación la reposición del pavimento de rodadura se realizará a toda la anchura de los mismos y de modo que los cortes sean perpendiculares con el bordillo. Todos los recortes serán realizados con cortadora mecánica, procediendo a su correspondiente sellado una vez pavimentado. La reposición de la capa de rodadura se efectuará dentro de los 10 días siguientes al vertido del hormigón de base y seguidamente se repondrá la señalización horizontal afectada con pintura de doble componente.

#### ZANJA EN ACERA Y/O ZONA PEATONAL

El remate superior en aceras, será de baldosa hidráulica y, como mínimo, 10 cms de hormigón HNE-20/B/20. En los vados de acera el espesor de hormigón será de 20 cms. En las zonas peatonales, en las que el acabado existente no sea con baldosa, este se realizará con el mismo acabado al existente, disponiendo de los materiales necesarios para dicha reposición previo al inicio de los trabajos. Además la reposición del paquete de firmes será al menos 20 cms mayor por cada lado de la zanja a realizar y a baldosa completa sin cortes, reponiendo todas aquellas que pudieran verse afectadas por la ejecución de los trabajos. El material de

akaberarako materialak orain bertan dagoen materialaren ezaugarri berak izan behar ditu, zona horretan kalte estetikorik ez egiteko eta material horren osotasun estrukturala bermatzeko. Bidea mantentzeko eta garbitzeko ibilgailuen zirkulazioari eusteko modukoa izan behar da.

Zangak aldatu behar diren zonak gorabehera, espaloi edota galtzadaren tarte osoa egikaritu behar den zonetan bide-zoruaren ezaugarri orokorrak hauek izango dira:

#### ESPALOIA:

- 10 cm-ko lodierako oinarri azpia, zabor legarrezkoa.
- 10 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HNE-20/B/20.
- Granitozko zintarria, 15x25 cm, alakatua.
- Orain dagoen zoruaren ezaugarri berberak dituen zorua:

Baldosa hidraulikozko zorua (Bilbao motakoa), 30x30x4 cm-koa.

Oinezkoentzako guneetako ehundura zimurreko baldosa 40x40x4 cm-koa izango da.

Galtzada harriek eta lauza granitikoek eta/edo granitozkoek gaur egun dauden materialen neurri eta ezaugarri berberak izango dituzte.

#### GALTZADA:

- 20 cm-ko lodierako oinarri azpia, zabor legarrezkoa.
- 20 cm-ko lodierako oinarria, hormigoizkoa, HM-20/P/25/I.
- 5 cm-ko lodierako errodadura geruza, berotako nahaskin bituminoskoa, AC16 surf 50/70 D.

acabado de zonas peatonales será de idénticas características al existente en la zona de cara a evitar posibles daños estéticos, así como asegurar la integridad estructural del mismo material capaz de soportar el tráfico de los vehículos de mantenimiento y limpieza viaria.

Con independencia de las zonas en las que se ha de llevar a cabo la reposición de zanjás, las características generales del paquete de firme a ejecutar en las zonas en las que haya de ejecutarse tramo entero de acera y/o calzada tendrá las siguientes características:

#### ACERA:

- Sub- base de 10 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 10 cms de espesor de hormigón HNE-20/B/20 .
- Bordillo de granito de 15x25 cms , achaflanado.
- Pavimento de características iguales a las existentes :

La baldosa de la acera hidráulica tipo Bilbao de 30x30x4 cms.

La baldosa de textura rugosa de las zonas peatonales será de 40x40x4 cms.

El adoquín y las losas graníticas y/o de granito serán de las medidas y características materiales iguales al existente.

#### CALZADA:

- Sub- base de 20 cms de espesor de zahorra artificial.
- Base de 20 cms de espesor de hormigón HM-20/P/25/I.
- Capa de rodadura de mezcla bituminosa en caliente AC 16 surf 50/70 D de 5 cms de espesor.

Aurkeztutako dokumentazioa gorabehera, garajeko sarbidea badago, hauxe nabarmendu behar da:

- Garajeak sarbide bakarra izango du erkidego bakoitzeko eta, hala badagokio, urbanizazioko eranskinean zehaztu beharko da.
- Dauden eraginak gorabehera, dagoen espaloia ren kotak, eta oinezkoen ibilbideari dagokionez, mantendu egingo dira. Espaloia ren aurrerapena aparkatzeko zonan egin beharko da, horrelakorik badago. Kote n doikuntza, galtzadatik espaloira, sarbiderako, aurrerapen honetan egingo da.
- Ibilgailuen sarbidea granitozko zintarriarekin egin beharko da, 15x20 neurrikoa, orain dagoenaren ezaugarri berdinekin, eta udal-teknikariekin egindako zuinketari jarraituz.

Hala badagokio egin beharko den espaloia ren aurrerapenaren krokisa erantsi da:

Aipatutako aurrerapen horri eragiten dioten espaloiko aldaketak zuinketaren eta in situ emandako jarraibideen arabera egin beharko dira. Dena den, edozein kasutan, eta aldapa transbertsalari eta longitudinalari dagokienez, horiek irisgarritasun-araudiari egokitu beharko zaizkio, eta etxebizitzetako sarbideak (oinezkoenak/ibilgailuenak) egokitu beharko zaizkie ukitutako espaloietan eta galtzadetan dauden kotei.

Arestian azaldutakoaz gain:

- Zama-lanetako maniobren ondorioz edota obrek makinak mugitzearen ondorioz narriatzen den zorua birjarri

Con independencia de la documentación presentada resaltar que en el caso de que haya cceso a garaje :

- Solo habrá un acceso a garaje por comunidad que deberá ser definido, en su caso, en el anexo de urbanización
- Con independencia de las afecciones que haya las cotas de la acera existente y en lo que afecta al itinerario peatonal se mantendrán, debiéndose ejecutar el avance de acera correspondiente en la zona de estacionamiento en caso de que este existiera. El ajuste de cotas desde la calzada a la acera, para el acceso se llevara a cabo en este avance.
- El acceso de vehículos deberá ejecutarse con bordillo de granito de 15x20 de las mismas características que el existente, conforme al replanteo que en su día se haga con los técnicos municipales.

Se adjunta croquis del avance de acera a ejecutar en su caso :

Las modificaciones en la acera que afectan al mencionado avance, deberán llevarse a cabo conforme al replanteo e indicaciones que se den " in situ" en su momento, si bien en cualquier caso y tanto en lo que afecta a las pendiente transversal como a la longitudinal estas deberá ajustarse a la normativa de accesibilidad, resaltándose que en todo caso deberán ser los accesos de la vivienda ( peatonal / vehículos) los que se adapten a las cotas ya existentes en las aceras y calzadas afectadas

Además de lo mencionado anteriormente:

- Se deberá reponer todo aquel pavimento que sufra deterioros como consecuencia de las maniobras de carga

egin beharko da.

- Espaloietan eta oinezkoentzako guneetan dauden kutxatilen estalkiak baldosaz estaltzeko modukoak izan behar dira, eta orain dagoen zoladura-mota berarekin errematatuko dira.
- Galtzadan geratzen diren estalkiak sendotu egingo dira, ibilgailuen trafikoari eutsi ahal izateko, D-400 motarekin.

### ARGIZTAPENA

Argiztapen Publikoko Zerbitzuak (inguruko hiri-espazioetan zerbitzu hori badago), orain Neguri etorbideko lurzatiaren aurrean eta inguruetan dauden instalazioak (bide-motako luminariak, 9-10 metroko altuerako fatxadaren jarriak, lurpeko linea elektriko baten bidez elikatuak eta fatxadaren kontra eutsita) behar bezala gordeko ditu, aipatutako argi-puntuak, kanalizazioak eta linea elektrikoak ez kaltetzeko moduan, eta lurzatiaren eta/edo eraikinen sarbideak baldintza horiek betez. Instalazioen funtzionamendu- eta segurtasun-baldintzak eta espazio publikoetako argiztapen-baldintzak une oro bermatuko dira, baita jar litezkeen aldamioren azpikoak ere.

Orain dagoen argiztapena egokia denez, beste zerbitzu batzuekin lotutako urbanizazio-jarduketak beharrezkoak diren zonetan argiteriaren kanalizazioa egingo da, gertuen dagoen udal-sarearekin lotu arte; horretarako, kutxatila jarriko dira 30 metro bakoitzeko, norabide-aldaketetan eta urbanizazioaren muturretan. Eskatzaileak eta/edo enpresa

y descarga y/o movimiento de maquinaria originado por las obras.

- Las tapas de arquetas que queden ubicadas en las aceras y zonas peatonales deberán ser embaldosables, rematadas con el mismo tipo de pavimento existente.
- Las tapas que queden ubicadas en calzada, serán reforzadas para soportar el tráfico rodado tipo D-400

### ALUMBRADO

En lo que se refiere al Servicio de Alumbrado Público, del que se dispone en los espacios urbanos circundantes, se conservarán en correctas condiciones las instalaciones existentes en la actualidad en el frente de la parcela correspondiente a la Av Neguri (luminarias tipo viario sobre fachada a 9-10m de altura, alimentadas a través de línea eléctrica subterránea y apoyada en fachada) y en las zonas próximas, de modo que no sean afectados por las obras los puntos de luz, canalizaciones ni líneas eléctricas, situando los accesos a las parcelas, edificios y/o edificios de acuerdo con estas premisas y garantizando en todo momento tanto las condiciones de funcionamiento y de seguridad de las instalaciones como las de iluminación de los espacios públicos, incluso bajo los andamiajes que pudieran instalarse.

Dado que el alumbrado existente puede considerarse adecuado, en las zonas en que sean precisas actuaciones de urbanización relacionadas con otros servicios realizará canalización de alumbrado hasta enlazar con la red municipal más próxima, construyendo arquetas cada 30m, en los cambios de dirección y en los extremos de la urbanización.

El solicitante y/o empresa promotora

sustatzaileak proiektuan edo urbanizazio-eranskinean jaso beharko dute egingo dituztela arestian aipatutako baldintzak betetzeko behar diren jarduketak, aipatutako instalazioko elementuen kokalekua errespetatuz, eta obrak hasi baino lehen beraien oraingo egoera jakiteko behar den dokumentazioa (baita grafikoa ere) bidaliko dute. Horrenbestez, obrak egitean edo obrak amaituta daudenean instalazioetan izandako kalte edo hondatze oro beraiei egotziko zaie.

Instalazio horiek funtzionatzen jarraituko dute egiten diren instalazio berriak martxan jarri arte. Horiek, beharrezkoa balitz, kontratistak baliogabetu, deskonektatu eta kendu egingo ditu gero, akatsik eta narriadurarik eragin gabe, udalaren biltegietara eramango ditu eta beharrezko diren erremateak egingo ditu.

Aurreikusitako jarduketan garapenak ez badu ahalbidetzen gaur egungo instalazioen segurtasuna eta funtzionamendua mantentzea, eta/edo proiektu osoan integratzeko instalazio horiek aldatzea beharrezkoa bada, aurkeztutako dokumentazioan behin-behineko konponbide aukera bat definituko da, aipatutako baldintzak betetzen dituen.

Une oro instalazioetako osagai guztien (kutxatilak, kutxak, kableak, argi-puntuak, eta abar) eskuragarritasuna bermatu beharko da egin beharreko mantentze-lanak egin ahal izateko, kontuan izanda balitekeela lan horiek bitarteko mekanikoak behar izatea.

deberán considerar en el Proyecto o Anexo de Urbanización la realización de las actuaciones precisas para cumplir las condiciones señaladas anteriormente, respetando la ubicación de los elementos de la instalación ya citados, y remitir previamente al comienzo de las obras la documentación (incluso gráfica) precisa para determinar el estado y situación actual de los mismos. Se entiende que todo daño o deterioro detectado en las instalaciones con durante la ejecución o con posterioridad a las obras será imputable a éstas.

Las instalaciones se conservarán en funcionamiento hasta la puesta en servicio de las nuevas ejecutadas, en su caso, procediéndose posteriormente por parte del contratista a su anulación, desconexión, desmontaje y traslado sin falta ni deterioro a los almacenes municipales y a la realización de los remates precisos.

En caso de que el desarrollo de las actuaciones previstas imposibilite mantener la seguridad y el funcionamiento de las instalaciones actuales y/o precise su modificación para integrarlas en el conjunto del proyecto, se definirá en la documentación presentada una solución provisional alternativa a la misma que cumpla con los condicionantes ya indicados.

Deberá facilitarse en todo momento el acceso a los elementos (arquetas, cajas, cableado, puntos de luz...) de las instalaciones para realizar las labores de mantenimiento que requieran, considerando que estos trabajos pueden precisar medios mecánicos.

Instalazioen diseinuak, zuinketak eta betearazpenak iraun bitartean, kontuan hartuko da kanalizazioak eta linea elektrikoak espazio libreetan zehar egin behar direla, zuhaitzen lerrokaduretatik urrun, sustraiek edo adarrek ez ditzaten kaltetu, eta, espaloien kasuan, eraikinen fatxadetatik edo finken itxituretatik gertu. Argi-puntuen kokalekua zehazterakoan, natura-, eraikuntza- eta urbanizazio-elementuak kontuan izango dira (zuhaitzak, altzariak, bideak, eta abar), argiaren kalitatea bermatze aldera.

Azkenik, egin beharreko instalazioak agiri bidez definitu eta justifikatuko dira (argi-kalkuluak eta energia-efizientziako kalkuluak barne, hala badagokio), ondo kontuan izanik erabiltzen diren materialek eta obraren egikaritzeak aplikatu beharreko araudia bete behar dutela (1955/2000 Errege Dekretua, 842/2002 Errege Dekretua, 1890/2008 Errege Dekretua, eta abar), udalarena barne (baldintza-plegua, eta Getxo udalerrian argiztapen publikoko instalazioei aplikatu beharreko xehetasun teknikoak).

Okerreko interpretaziorik ez egiteko, informazioa besteren bidez oker ez jakinarazteko eta instalazioen zuinketa egiteko, sustatzaileak eta tentsio txikiko instalatzaile baimendunak (instalazioa egin behar duena) zerbitzuaren arduradunen udal-teknikariekin harremanetan jarri behar dute 94.466.01.80 telefono-zenbakian.

#### LOREZAINZA.

Egin behar diren eraikuntza-obrek ez dute eraginik izan behar obran

Durante el diseño, replanteo y la futura ejecución de las instalaciones se tendrá en cuenta que las canalizaciones y líneas eléctricas deberán discurrir por espacios libres alejados de las alineaciones de árboles para evitar que sean afectadas por las raíces o ramas y, en el caso de aceras, próximas al cierre de las fincas o a las fachadas de las edificaciones. La situación de los puntos de luz se definirá considerando la existencia de otros elementos naturales, constructivos o de urbanización (arbolado, mobiliario, vialidad...), de modo que se garantice la calidad del alumbrado.

Finalmente, se definirán y justificarán documentalmente las instalaciones a realizar (incluso cálculos lumínicos y de eficiencia energética, en su caso) teniendo bien presente que tanto los materiales empleados como la ejecución de las obras deben cumplir la normativa aplicable (RD 1955/2000, RD 842/2002, RD 1890/2008, etc.), en la que se incluye la municipal (Pliego de Condiciones y Detalles Técnicos aplicables a instalaciones de alumbrado público en el municipio de Getxo).

Al objeto de evitar interpretaciones incorrectas y transmisiones erróneas de la información a través de terceras personas y para realizar el replanteo de las instalaciones, el promotor y el Instalador Autorizado en Baja Tensión que vaya a ejecutarlas deberán ponerse en contacto con los Técnicos Municipales responsables del Servicio en el teléfono 94.466.01.80.

#### JARDINERÍA.

Con relación a las obras de construcción a llevar a cabo la totalidad de las



inguruan dauden eta udalarenak diren lerrokatutako zuhaitzetan, berdeguneetan, zuhaitzetan eta zuhaixketan, makineriaren joan-etorriak eta maniobrak edo gunerako sarbideak gorabehera.

#### HONDAKINAK ETA GARBIKETA

Obrako ibilgailuak eta/edo makinak zein zonako bitarteko osagarriak bide publikora irtetean, ez da bide publikoa zikinduko eta ez da segurtasun-arazorik sortuko zikinkeriagatik. Hondakinen zorrotenak edo eraispen-hondakinak pilatzeko zonak, hondakinak kudeatzeko puntuak eta abarreak baldin badaude, haien kokapenak ez du bide publikoa zikinduko eta ez du eraikuntza-hondakinik pilatuko, behar bezala mugatu gabe.

